

GERNIKAKO JAIK 2017
KARTEL LEHIAKETA

Gernika-Lumoko Udalak, Jai Batzordearen bitartez, kartel lehiaketarako deia egin nahi du 2017ko Andra Mari eta San Roke Jaiak iragarriko dituen aukeratzeko. Baldintzak honako hauek dira:

1.- Edonork parte har dezake. Ezin izango da txertatu idatzirik edota irudirik politika zabalkunde, arrazismo, sexuheria, biolentzia aldarrikapen, edari alkoholdu, tabako edota gainerako drogen inguruko aldarrikapenik egingo duenik.

2.- Lanak **originalak** eta **inoiz argitaratu gabeak** izango dira.

3.- Lanak **soilik formatean aurkeztuko dira** eta **CD bertsioak euskarria erabiliko da.**

3. Lan bakoitza 3 formatotan aurkeztu beharra dago

1. Diseinurako erabili den formatean. (*)
2. 1MB-eko JPG-a.
3. Azken inpresioaren tamainako erresoluzio altuko PDFa.

(*): Eskuz edota beste teknika batzuk erabilita egindako diseinuak eskaneatuta aurkeztu beharko dira.

4.- **Udalak inprimatuko** duen kartela **formatean bertikalekoa** izan behar da eta bere **dimentsioak** hurrengoak izango dira: 65 cm. altueran eta 45 cm. zabalera.

5.- Kartelean agertu beharreko testua hau da:

GERNIKAKO JAIK 2017
Abuztuak 14-18

6.- Lanak gutunazal handi baten barruan aurkeztu beharko dira. Barruan beste bi txiki.

- 1. gutunazalean lanaren izenburua. Hauxe izango da beste bi gutun azalak barnean izango dituen gutun azal handia.
- 2. gutunazalean CD-a lanarekin. CD-aren azalean lanaren izenburua.
- 3. gutunazalean egilearen izena, abizenak, helbidea eta telefonoa.

7.- Lanak aurkezteko epea **2017ko ekainaren 23an** amaituko da. Lanak Kultur Etxean entregatu ahaliko dira astegunetan. Ordua: 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara, edo postaz bidal daitezke: Gernika-Lumoko Kultur Etxea, Foru plaza 3, 48.300 - Gernika-Lumo.

8.- Saririk ez ematea erabaki lezake epaimahaiak, aukeratutako kartelek behar adinako kalitaterik ez badaukate. Kasu horretan, Gernika-Lumoko Udalak herriko artista bati eskatu ahal izango dio kartela egiteko.

9.- Aurkezten diren lan guztiek behar bezala gestionatuta eduki behar dituzte kartelean ageri diren argazki, marrazki edo baliabide grafikoen erabilera- eskubideak, horiek irudien bankuetatik hartu direnean edo egilearenak ez direnean. Gernika-Lumoko Udalak ez du bere gain hartuko hirugarren batzuk aipatuta aurkezten diren lanen edukiaren ondoriozko erreklamazioen erantzukizunik.

10.- **Epaimahaiaren ahalmenak** Epaimahaiak lehiaketatik kanpo utz ditzake lanak:

- Egilea nor den zalantza dagoenean.
- Pertsonen duintasunaren aurka doazenean.
- Beste obra batzuen plagiotzat hartzen dituenak eta plagiotzat jo ez arren beste obra batzuetan inspiratutakoak izanik eta haiekin dituzten berdintasunez Epaimahaia jabeturik, originaltasunik ez dutela erabakitzen duenean.

11.- **Aukeraketa, 2017ko uztailaren 5an** burutuko den Jai Batzordean aukeratuko da kartel irabazlea eta egunean bertan jakinaraziko zaio irabazleari.

12.- **SARIA: 450 €**ko sari bakarra izango da.

13.- Saritutako diseinua Gernika-Lumoko Udalaren jabegoan geratuko da, honek egokien deritzon moduan erabil dezan.

14.- Aurkeztutako lanekin, baldintza hauek betetzen badituzte, erakusketa bat egingo da Kultur Etxean **ekainaren 26tik uztailaren 6ra bitartean. Erakusketa amaitu arte ezin izango da kartelik kendu.** Egun horretatik aurrera egileak edo baimendutako pertsonak berauek jasotzera pasatu ahal izango dira hiru hilabeteren buruan, epe hori igarotakoan lanak Kultur Etxeari ematen zaizkiola ulertzen baita.

15.- Lehiaketa honetan parte hartzeak baldintza hauek ontzat ematen direla adierazi nahi du.